



Koldobika Jauregi berak eginiko kartelari azken ukituak ematen, zintzilik jarri aurretik. I.T.

Gure aberastasuna erakusgai

Natura » Biodibertsitatea ardatz duelarik, atzo hasi zen Naturaldia; gaur, Nisa Goibururen erakusketa irekiko dute.

INIGO TERRADILLOS

Aurtengo Naturaldiak zabaldu ditu ateak. Era berezian zabaldu ere, izan ere, Koldobika Jauregik Naturaldiko kartel erraldoia Kultur Etxean zintzilik jartzearekin eman zioten atzo hasiera ofizialki aurtengo jardunaldiei.

Irekiera egunak gehiagorako ere eman zuen. Eskulturgile alki-zarrak diseinaturiko kartela ikusgai jarri ostean Zerkausan dagoen *Biodibertsitatea atarian* erakusketa inauguratzeko txanda izan zen. Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak hartu zuten parte ekitaldi honetan, gure inguruan dugun aberastasuna nabarmenduz eta hori zaintzearen ardura gizarte osoarena dela azpimarratuz. Erakusketa tamaina handiko hainbat argazkiz osaturik dago, eta «Gipuzkoako faunaren eta floraren aberastasunaren eredu» izan nahi du.

Lehendabiziko eguna osatzeko


Karlos Ormazabal, Jokin Bildarratz, Shole Martin eta Markel Olano, *Biodibertsitatea atarian* erakusketan, Olanok ateratako argazkia ikusten. I.T.

Daniel Paulyk gidaturiko hitzaldia izan zen Kultur Etxean. Arrantza eta itsasoko biodibertsitateaz jardun zuen; bere ustez, «tamaina handiko arrantzak arrainen desagertetara eramango gaitu».

Gaur, Goibururen erakusketa Naturaldia *Bizi Bizia* jardunaldiek jarraipena izango dute aste osoan zehar. Hala, gaur nabarmentzeko da Nisa Goibururen *Natura Gara* erakusketaren inaugurazioa, Aranburu jauregian. Artista tolosarrak Naturaldirako bereziki prestatutako arte erakusketa da,

eta gaurko ekitaldian, 19:30etik aurrera, performance bat egingo dute Joaquin Araujoren partaidetzarekin. Idazle eta naturazalek ekitaldi honetarako bereziki idatzitako poema eta haykuak erreziatuko ditu. Joxan Goikoetxea musikariak eta Inma Goiburu sopranoak ere hartuko dute parte.

Datorren asteari begira, astelehenean, asteartean eta asteazkenean hitzaldiak izango dira biodibertsitateaz hainbat adituren parte-hartzearekin, eta ostegunean *Flysch*, *haitzen hitza* ikus-entzunezkoa izango da, Leidor aretoan.



Laugarren kanpalekutik gailurrera bidean dira. RTVE 'AL FILO DE LO IMPOSIBLE'

13. zortzimilakoa lortu dezake gaur, Edurne Pasabanek

Mendia » Gauerdian ekin diote gailurrerako bideari; azken mila metroak geratzen zaizkio tolosarrari Annapurna gainditzeko.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban eta bere espediziokideak, hau da, Asier Izagirre, Alex Chicon eta Nacho Orviz laugarren kanpalekuan aurkitzen dira, 7.200 metrora. Annapurna igotzeko azken metroak geratzen zaizkie, beraz, eta horiek gaur egiteko asmoa dute. Hain zuzen ere, 04:00ak inguruan (Euskal Herriaren 00:00ak direnean) abiatuko dira gailurrerantz.

Hainbat zailtasun gainditu behar izan zituzten atzo, laugarren kanpalekura iristeko. Horietako

bat pitzadura bateko horma. Bi ordu eta 200 metro luzerako soka behar izan zuen Asier Izagirre tolosarrak eskalatzeko. Behin horma igota, soka pasa ahal izan zuten gainerakoei. Laugarren kanpalekura bidean aurrera zihoazela gisa bereko beste zailtasun batekin, malkar zail batekin, ere egin zuten topo. Kasu horretan, beste 150 metro soka behar izan zuten, eta ordu eta erdi inguru.

Horrekin guztiarekin, aurreikusitako denbora baino gehiago behar izan dute, eta beraz, laugarren kanpalekua pentsatutakoa baino 200 metro beherago jarri dute. Ondorioz, gaur 200 metro gehiago igo beharko dute. Bi ordu gehitu beharko dizkiote igotzerari, izan ere, altuera horietan, 100 metro gorantz egiteko ordubete behar izaten dute gutxi gorabehera.

Jendearen aurrean hitz egiten ikasteko tailerra

ERREDAKZIOA

Tolosako Barrearen eskolak antolatuta jendearen aurrean ondo hitz egiten ikasteko ikastaroa izango da datorren larunbatean, hilaren 24ean. Oinarrizko ikastaroa eta aurreratua emango dituzte egun bakarrean, guztira 8 ordu eta erdi iraungo duelarik. 09:30etik

14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Izena 943 11 86 69 edota 688 80 08 00 zenbakietan eman ahal da.

Barrearen eskolakoei diote geroz eta garrantzitsuagoa dela jendearen aurrean solasaldiak ematea, eta «hori ondo egitea guztion eskura dago».

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Mahala
Behi gaita

Mahala
Gazta fresko Naturala

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ileapaintzailea.** Ibarra ilea-paindegi batek laguntzailea behar du. metxa2@yahoo.es. 609 79 27 87.

SALGAI

■ **Lokala.** Iruran lokala salgai. Las-kibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m². 78.000 euro. Deitu 645 72 19 47 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ **Facebook.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Facebook sare sozialean ere dagoeneko badu bere ataria. Eskualdeko egunkariaren laguna eginez gero, zuzenean jaso ahal izango dituzu zure herriko azken albiste guztiak. Gero eta lagun gehiago atxikitu dira, eta jada beste modu batera jasotzen dute informazioa lagun horiek. Bestalde, egunkariaren webgunera, tolosaldeko-hitza.info, lotura zuzena du eta honen bitartez ere heldu daitezke. Sartu gure sare sozialean:

www.tolosaldeko-hitza.info